



# HABE LIBURUTEGIA



## eleaniztasuna ardatz

**HABE Liburutegia**  
biblioteka publikoa  
da eta 35 urteko  
ibilbidea egin du  
eleaniztasunaren  
inguruko gaiak  
jorratzen.

Bere egitekoa da, lehen-lehenik,  
HABE eta Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzako lankideek dituzten  
dokumentazio-beharrak asebetetzea  
eta, halaber, hizkuntzekin lotura  
duten erakunde publiko zein pribatu,  
unibertsitateko ikasle-irakasle,  
ikertzaile eta, oro har, herritarrek  
dituzten premiei erantzutea.



## ZERBITZUAK

Liburutegiko funtsa 45 mila monografia eta 750 aldizkariz osatuta dago eta, ohiko zerbitzuez gain (kontsulta bibliografikoak, mailegu pertsonala, liburutegien arteko mailegua, erreprografia, desideratak, bisita gidatuak...), beste zerbitzu espezializatu batzuk eskaintzen ditugu:

### **Alertak zerbitzua**

Liburutegiak harpidetuta dituen gure espezializazio-alorreko 125 aldizkari tekniko kontrolatzeko aukera ematen du zerbitzu honek. Erabiltzaileak aukeratzen dituen aldizkariak ale berri bat argitaratu orduko, erabiltzaileak *alerta* bat jasoko du azken ale horren aurkibidearekin eta intereseko artikulurik topatzen badu, eskatu eta posta elektronikoz jasoko du.

### **Sareen bidezko zerbitzuak**

Eleaniztasuna jorratzen duten teknikari, ikerlari eta herritarren zerbitzura egonik, HABE Liburutegiak munta handiko sareetan parte hartzen du gure erabiltzaileei ahalik eta zerbitzurik egokienak eta azkarrenak emateko xedez:

1. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea
2. Rebiun: Red de Bibliotecas Universitarias
3. WorldCat
4. Dialnet

Sareetan parte hartzeak dituen abantailak baliatuz, batetik, gure jakintza-eremuko edozein dokumentu, *guk eduki ala ez*, gure erabiltzaileei eskaintzeko modua daukagu eta, bestetik, gure funtsak mundu osoko ikerlarien esku jartzen ditugu.

### **Liburutegia Interneten**

Liburutegiaren jarduna eta online zerbitzuak ezagutu eta jarraitzeko aukera ezberdinak dituzu: Web-orria, Bloga, Twitter, Facebook, Pinterest.



## JAKINTZA-EREMUA

Liburutegiaren funtsak hiru atal hauetan antolatuta daude:

### Hizkuntzalaritza Aplikatua

Hizkuntzen alde didaktikoak, soziologikoak, psikologikoak eta hezkuntzari buruzkoak jorratzen dituzten dokumentuak biltzen ditugu atal honetan. Gainera, euskararen didaktika eta Euskal Herriko hizkuntzen ikuspuntu soziologikoa, psikologikoa eta hezkuntzarekin loturikoa jorratzen dituzten dokumentuak arreta bereziz lantzen ditugu.

Sei azpiatal nagusitan banatuta dago:

- A** Soziolinguistika
- B** Bigarren hizkuntzaren didaktika
- C** Psikolinguistika
- D** Hizkuntzek duten tokia munduko hezkuntza sistemetan
- E** Ama-hizkuntzaren didaktika
- F** Hizkuntzalaritza

### Euskal Biblioteka

Euskarazko produkzio osoa biltzen da bertan: literatura (eleberria, ipuina, antzerkia, olerkia, bertsolaritza...), gizarte-zientziak, natur-zientziak, zientzia aplikatuak, artea, geografia, historia...

### Material Didaktikoa

Atal honetan, hainbat hizkuntza ikasi edo irakasteko materialak biltzen ditugu: euskara, ingelesa, frantsesa, gaztelania, alemana, katalana, eta beste 70en bat hizkuntza ikasteko materialak aurki daitezke bertan: txinera, arabiera, errusiera, japoniera, poloniera, italiara, hungariera, bulgariera, hindia, swahilia... eta beste asko.

**HABE**  
LIBURUTEGIA



## Ordutegia

- **Astelehenetik ostegunera:** 08:30-15:00
- **Ostiraletan:** 08:30-14:30
- **Udako ordutegia** (ekaina-iraila), egunero, 08:30-14:30

## Hemen gaude

HABE Liburutegia

Vitoria-Gasteiz 3, 4. solairua

20018 Donostia-San Sebastián

943-022602 eta 943-022604

[liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus) (orokorra)

[maileguak@habe.eus](mailto:maileguak@habe.eus) (maileguak)

<http://www.ikasbil.eus/web/liburutegia>

@HabeLiburutegia

<https://www.facebook.com/HabeLiburutegia/>

<https://es.pinterest.com/habeliburutegia/>

**HABE**

Hekuden Añabatzte eta Berreuskaduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

